

GURE PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua gazteentzako bidaiak antolatzean datza, izan ere, gabezia bat aurkitu dugu gazteen aisialdian. Guk detektatu genuen aisialdiko gabezi horretatik abiatuz, gazteei zuzendutako bidaiak antolatu ditugu. Bidai hauen helburua, gazteeak prezio merkean eta giro onean aisialdiko aukera ezberdinak edukitzea datza askotan ez dituztelako aisialdiko ekintzak edukitzen. Aipatu bezala gure enpresa gazteen beharretara egokitu gara, hortaz, prezio merkeak ezarri ditugu gure bidaietan, abiapuntu gisa hartuz zer nolako egoera ekonomikoa duten gazte gehienak. Hori dela eta, gure bidaiak Ibiza eta Mallorcara egonogo dira bereziki zuzenduta joan nahi duten guztientzako.

Horretarako, hainbat jarduera edo hurrats eman ditugu. Hasteko, gure bezeroekin kontaktuan jartzeko baliabideak bilatu ditugu, eta jarraian bidaia gauzatu ahal izateko ezinbestekoak diren gauzak prestatu ditugu, garraioa eta hostatua bezala. Horrez gain, proiektua aurrera ateratzeko beste enpresa batzuekin jarri gara kontaktuan, batzuk hostatuarekin, garraioarekin edo ekintzekin lagunduko digute, beste batzuk berriz gure proiektua zabaltzeaz arduratuko dira. Hortaz, gure enpresarentzat garrantzitsua izango da publizitatea, adibidez; ikastoletan gure proiektuaren berri emango dugu, horretarako, ikastolen elkarearekin kontaktuan jarri gara bezero gehiago edukitzeko helburuarekin.